



## **GARAPENERAKO LANKIDETZA KONTSEILUAREN BILERA**

**Tokia eta eguna:** Leioan, 2011ko urriaren 28an

**Hasiera-ordua:** 12:00etan

**Amaiera-ordua:** 13:30ean

**Presidentea:**

Iratxe Amiano andrea (Gizarte Erantzukizuneko zuzendaria)

**Idazkaria:**

Estibaliz Martínez andrea (Garapenerako Lankidetzaren Bulegoko teknikaria)

**Bertaratu direnak:**

**Kontseilukideak**

Luis Guridi jauna

Eneko Calle jauna

Joseba Zuazo Olozaga jauna

**Kontseilukide ez diren pertsonak:**

Unai Etxeberria Villate jauna

**Ez bertaratuak:**

Amaia Maseda andrea

Koldo Unceta Satrústegi jauna

Anaut Patterson Mendiola jauna

Maria José Mijangos andrea

Imanol Zubero jauna

Christian Celis González jauna

María José Maeztu andrea

Joseba Sainz de Murrieta Mangado jauna

**Gai-zerrenda:**

1. Aurreko aktak onestea
2. Irakasleen enkargu-kredituen aintzatespena onartzea.
3. UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren arloko Planean egin diren aurrerapenak.
4. Galderak eta eskaerak.



## **Akta**

Iratxe Amiano andreak (Gizarte Erantzukizuneko zuzendaria) hasiera eman dio bilerari. Bileraren hasieran, Iratxe Amianok (Gizarte Erantzukizuneko zuzendaria) bilerara etortzea eskertu die bertaratuei, eta gai-zerrenda aurkeztu du.

### ***Lehen aztergaia: Aurreko aktak onestea***

Lankidetzako Kontseiluak **2011ko ekainaren 30ean** egin zuen bileraren akta onetsi dute.

Bestalde, aktak idazteko formatua aldatzeko proposamena, Luis Guridik egindakoa, gehiengoz onartu da. Horrenbestez, hemendik aurrera, gai-zerrendari lotutako erabakiak ez ezik, kontseilukideen parte-hartzeak eta iradokizunak ere jasoko dira aktetan.

### ***Bigarren aztergaia: Irakasleen enkargu-kredituen aintzatespena onartzea.***

Iratxe Amianok azaldu du UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak (ofizioz ziharduera) lankidetzaren proiektuetan parte hartu izanagatik kredituak lortu dituzten irakasleen zerrenda egin duela, eta kreditu horiek 2012/13 ikasturtean jasoko dituztela irakasleek (1. eranskina).

Iratxe Amianok argitu du UPV/EHUko legeak, arlo horri buruzkoak, hartu direla aintzat, zerrenda hori egiteko. Horrez gain, Kontseilu honetako batzordeak, garapenerako lankidetzaren ikerkuntza-arloko kredituak aintzatespena aholkularitzat hartuta, 2010eko abenduaren 10ean egin zuen bileran adostu zituen erabakiak ere errespetatu direla. Bertaratu diren kide guztiek onartu dute 1. eranskina, irakasleen errektoreordeari aurkeztekoa.

Luis Guridik azaldu du 2010-2011 ikasturtean garapenerako lankidetzari buruzko ikerkuntza-proiektu askotan lan egin zela, eta proiektu horiek UPV/EHUtik kanpoko lehiaketa-deialdiei lotutako diru-laguntzak izan dituzten arren, ezin dutela irakasleen enkargu-krediturik jaso. Enkargu-kredituak ukatzeko arrazoia hau da: ikerkuntza-talde finkatuek edo UPV/EHUko sailek aurkeztu zituzten proiektu horiek, baina UPV/EHUk ez du haietan parte hartu proiektuaren erakunde arduradun gisa. Luis Guridik jakinarazi du irakasle eta ikertzaileak ez daudela ados gertaera horrekin. Haien guztien uste dute araudi hori eztabaidan behintzat jarri beharko litzatekeela.

Iratxe Amianok erantzun du indarreko araudiaren bitartez lortu nahi dela irakasleek kanpoko diru-laguntza gehiago eska dezaten, eta UPV/EHUko parte-hartzea deialdietan nabarmenagoa izan dadin. Horregatik, eskaera horiek ezin dutela jaso 2012/12 ikasturtean amortizatzen krediturik.

Hala eta guzti, Iratxe Amianok azaldu du araudi hori aldaketa-prozesuan dagoela. Hortaz, legeria hori aztertu, gai horren inguruan beste unibertsitate batzuek dutenarekin erkatu, eta proposamenen bat egin daitekeela. Bertaratu diren pertsona guztiek adostu dute Kontseiluak irakasleen enkargu-kredituen araudia arlo guztietan berrikusi, eta proposamen bat egin dezan.

### ***Hirugarren aztergaia: UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren arloko Planean egin diren aurrerapenak.***

Iratxe Amianok azaldu du ezinezkoa dela plan hori ez zuzentzailetzat ez estrategikotzat hartu. Horregatik, ***Garapenerako Lankidetzaren Plana*** deitzea erabaki dute.

Unai Etxeberriak dokumentu bat (2. eranskina) aurkeztu du, Plana egin aurretik egindako inkestaren emaitzak jasota dituenak. Inkesta banaketa-zerrendaren bitartez bidali zitzaizen UPV/EHUko AZLko langileei eta ikasle eta ikertzaileei (5.000 pertsonari inguru). Inkestan parte hartu zuten 1.095 pertsonatik 479 pertsonak bete egin dute (kopuru osoaren %43k). Sexuaren arabera banaketa ezin izan da egin, sexua zehazteko aukera ez zegoelako txertatuta inkestan.



Gar lehenetsiei dagokienez, guztiek balioespen ona jaso dutela adierazi du.

Bestalde, nabarmentzekoa da 181 pertsonak posta elektronikoko helbidea eman dutela Plana egiteko prozesuari buruzko informazioa jasotzeko eta parte hartzeko asmoz.

Kideen gehiengoak onartu du inkesta ikasleei helarazi beharra. Horretarako, Bulegoa Ikasleen Errektoreordetzarekin jarriko da harremanetan. Ikasleei egindako inkestaren emaitzak bereizita aztertuko dira, eta inkestatuaren sexua aintzat hartuko da. Horrez gain, lehen galderari (Garapenerako Lankidetzaren Plan bat egitea beharrezkoa dela uste duzu?) “Bai” erantzun ostean gai lehenetsiei buruzko galderak modu dinamikoan agertzea erabaki da.

Unai Etxebarriak aurkeztu du Garapenerako Lankidetzaren Planaren aurkibide orokorra. Honako hau erabaki da Plana egitearen inguruan:

1. Aktari atxikita dagoen aurkibide orokorra (3. eranskina) onartzea, eta aurkibideari puntu bat gehitzea, Planaren ezaugarriak zehaztekoa (dinamikoa, irekia, ...).
2. Unai Etxeberria, bulegoko teknikaria, idazten ari da I, II, III (1 eta 2) puntuak.
3. IV.3 (Jardun-ildo estrategikoak) puntuari dagokionez, orri bat inguru idatziko du ildo bakoitzari buruz. Helburua garapenerako unibertsitate-lankidetzaren arloan UPV/EHUren ikuspegia eta xedea pertsonalizatzea da. Horretarako, erreferentziatza hartuko dira honako hauek: Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren arloko Unibertsitateen Jokabide Kodea, UPV/EHUko estatutuak eta 0 Diagnostikoa. Horrekin batera, ildo estrategikoak idazteko gako-puntuak ere jakinarazi ditu:
  - Ildo estrategikoa zergatik den garrantzitsua hausnartzea.
  - Ildo horren barnean zein ekintza-mota dauden (esate baterako, irakaskuntzan gradu eta graduondoko ekintzak ditugu), eta haietako zeintzuk sustatuko ditugun.
  - Lan-ildoak

Plana idazteko lana honela banatu da:

- a) Prestakuntza (Luis Guridi)
- b) Ikerkuntza (Luis Guridi)
- c) Garapeneraren inguruko zabalkuntza, sentsibilizazioa eta heziketa (Eneko Calle)
- d) Laguntza teknikoak (Unai Etxeberria)
- e) Erakunde-indarra (Iratxe Amiano)

Idazki guztiak Lankidetzaren Bulegora bidaliko dira, eta bertan homogeneizatzeko dituzte. Amaitutako dokumentua kontseilukideei bidaliko zaie.

4. **Abenduaren 2an** bilera bat antolatzekeo deia egitea. Bilera horretan idatzitako lana aurkeztuko da, eta IV. puntuari dagozkion gaiak (UPV/EHUko garapenerako lankidetzaren) eztabaidatuko dira:

-UPV/EHUren sektore-lehentasunak, garapenerako lankidetzaren arlokoak.



-Lehentasun horizontalak garapenerako lankidetzaren arloan.

-Geografia-esparru lehenetsiak.

-Talde lehenetsiak

Hurrengo bilera 2011ko **abenduaren 2an** egitea onartu da.  
**Beste aztergairik ez dagoenez, bilera amaitu da.**